



DEIALDIA, BI IZANGAI-ZERRENDA –BAT PRESTAKUNTZARAKO, ETA BESTEA ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO– HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUN LANPOSTUAN ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA

Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak deialdiak onartu zituen 2018ko maiatzaren 11ren:

DEIALDIAK

I. DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUN LANPOSTUAN ARITZEKO, PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN.

Hona deialdi hau arautuko duten

OINARRIAK

Lehen.- Deialdia iragartzen da izangai-zerrenda bat hautaprobek bitartez osatzeko, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUN lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritze aldera, Iruñeko Udalean aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Deialdian parte hartzen dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Iruñeko Udalaren edota haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak izatea, B, C edo D mailakoak, eta eskubidez dagokien gehieneko prestakuntza-aldia agorturik ez edukitzea.
- b) Lanpostuan gutxienez hiru urte benetan eman izana.
- c) Ez egotea borondatezko edo nahitaezko eszedentzian.
- d) Zuzenbidean Lizentziadun edo Gradudun titulua edukitzea eskabideak aurkezteko mugaegunean, edo halakoak erdiesteko maneran egotea.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztatzea eduki beharko dute.



2.2. Deialdi honi dagokion ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUN lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute euskara berariazko betekizun gisa dituzten lanpostuak betetzeko, baldin eta eskabideak aurkezteko mugaegunean Nafarroako Gobernuak ematen duen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badute, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa, eta, zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

2.3. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri honen 2.1. d) letran eta 2.2 zenbakian eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.4. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola prestakuntzak dirauen bitartean ere.

Hirugarrena.- Hautapoben nondik-norakoak eta balorazioa.

Hautapen-prozesua ebazpen honetan bi deialdietarako onetsitako arau komunetan ezarritakoarekin bat egingen da.

Laugarrena.- Prestakuntzako izangaiei dei egitea.

Izangaiei deitzea eta, hala badagokie, prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeran aritzeko izendapena honako hauetan ezarritakoarekin bat egingen dira: apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua eta dagozkion aldaketak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –Iruñeko Udalean langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

Aipatutako Erabakian berariaz ezartzen da prestakuntzarako zerrendak lehentasuna izanen duela aldi baterako kontrataziorako hautapen-probetarako deialdi publikoen bidez eratutako izangai-zerrendarekiko.

II. DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUN LANPOSTUAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZEKO.

Hona deialdi hau arautuko duten

OINARRIAK

Lehena.- Deialdia iragartzen da izangai-zerrenda bat hautapoben bitartez osatzeko, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUN lanpostuan aritze aldera, Iruñeko Udalean aldi baterako gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.



Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikagarria duen eremuko estatu batekoa.

Espainiarren ezkontideek eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatu etako nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte har dezakete, zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, beren ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

- b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.
- c) Zuzenbidean Lizentziadun edo Gradudun titulua edukitzea eskabideak aurkezteko mugaegunean, edo halakoak erdiesteko maneran egotea.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko dute.

- d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar dituen eginkizunetan aritzeko.
- e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizita ere.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitorten bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.

2.2. Deialdi honi dagokion ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUN lanpostuan aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute euskara berariazko betekizun gisa dituzten lanpostuak betetzeko, baldin eta eskabideak aurkezteko mugaegunean Nafarroako Gobernuak ematen duen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badute, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa, eta, zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

2.3. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri honen 2.1. c) letran eta 2.2. zenbakian eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.4. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.



Hirugarrena.- Hautapoben nondik-norakoak eta balorazioa.

3.1. Hautapen-prozesua ebazpen honetan bi deialdietarako onetsitako arau komunetan ezarritakoarekin bat eginen da; hala ere, aldi baterako kontrataziorako deialdi honek badu berezitasun bat, merezimenduak baloratuko baitira, gehienez ere 10 punturekin eta oinarri honetako 3.2 eta 3.3 ataletan ezarritakoarekin bat.

3.2. Merezimenduak.- Euskararen ezagupena, ofizialki egiaztatuta.

- a. B2 maila: 8 puntu
- b. C1 maila: 10 puntu

Tituluak eta egiaztagiria Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailekin bat baloratuko dira. Maila horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari-kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 ebazpenean jasota daude, zeinak ezartzen baititu euskararen eta Europar Batasuneko hizkuntzen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliozkotzeak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera (2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 27koa).

Maila gorenari dagokion puntuazioa emanen da.

3.3. Epaimahaiak ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik, ezta aipatu den gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

Merezimenduen emaitzak hautapoba egin ondoren argitaratuko dira, izangaien izena, abizenak, NANA eta puntuazioa adierazita. Ezarritako hautapoba gainditu duten izangaien merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkezteko, bi egun balioduneko epea izanen da, probaren behin betiko emaitzak argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Merezimenduen balorazioaren aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Laugarrena.- Dei egitea aldi baterako kontrataziorako izangaiei.

Izangaiei deitzea, eta hala badagokie, haien kontratazioa honako arau hauetan ezarritakoarekin bat eginen dira: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren Xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute



organo eskudunak egindako jatorrizko agiria aurkeztuta, edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua.

III. BI DEIALDIETARAKO ARAU KOMUNAK.

Lehena.-Eskabideak aurkezteko epea.

Bi deialdietan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Deialdien testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es) eta Herritarrendako Arreta bulegoetan.

Bigarrena.-Eskabideak.

Deialdietan parte hartzeko eskabideak Iruñeko Udalaren edozein Erregistrotan aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bideetako edozein erabiliz.

Eskabideak I. eranskinean jasotako ereduari lotuko zaizkio. Eredu hori eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren Herritarrendako Arreta bulegoetan eta Interneten, www.pamplona.es webgunean.

Parte hartzeko eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Eskabidearekin batera, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, betiere ezertan galarazi gabe kontratatuak izateko deituak direnean jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo legeekin bat kautotuak aurkezteko beharra:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen dituen agiriarena, eta behar izatera, aldi baterako kontrataziorako deialdiaren 2.1. a) letran eskatutako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzko agiriarenak.
- Zuzenbidean Lizentziadun edo Gradudun tituluaren fotokopia.
- Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGA) edo horren baliokide den titulu baten fotokopia, halakorik behar izatera.
- Ziurtagiria, izena emateko eskubide tasa dela-eta 12,50 euro Iruñeko Udalari ordaindu izana egiaztatzeko. Tasa hori ordaindu ezean, izangaia bazterturik geldituko da.

Tasa Iruñeko Udalak honako finantza entitate hauetan dituen kontuetan ordain daiteke, haietan dirua sartuz edo haietara transferentzia eginez: Caixabank (ES04 2100 2173 8102 0022 2762), Laboral Kutxa (ES22 3035 0039 3403 9090 0005) eta Nafarroako Rural Kutxa (ES07 3008 0001 1411 0344 7429). Bestela, Udaleko Diruzaintzan (Merkatuko kalea 7-9, 2. solairua) ere ordaindu daiteke. Ordainagirian ezinbestean agertuko dira honako datu hauek:

– Izangaiaren izen-abizenak.



- NAN / IFZ.
- Ordainketa zein kontutan egin den eta horren zenbakia.
- Kontzeptua: ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNen deialdia

Aipatutako agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, haien eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

Desgaitasun bat aitortuta duten izangaiek hori frogatzeko agiria –organo eskudunak emana– aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatu ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu zer-nolako desgaitasuna duten eta eskatutako egokitzapenak.

Hirugarrena.- Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta zerrenda ikusgai paratuko da Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es) eta Udalaren iragarki-taulan –Udaletxean bertan–, zerrendan izangaien izena, abizenak eta NANA adierazita.

Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta eskabidean egindako akatsak zuzentzeko, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda (izena, abizenak eta NANA agertuko dira, eta, baztertuen kasuan, bazterketaren zergatia), eta agindua emanen du hori jendaurrean paratzeko Udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako lehenengo hautapropa egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Izangaietan inor bazterturik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da (izena, abizenak eta NANA adierazita) eta Iruñeko Udalaren webgunean nahiz iragarki-taulan argitaratuko da, hautapropa egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskutan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdian parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte.

Laugarrena.- Hautaprobaren garapena.

4.1. Izangaiek proba teorikoan test erako galderak dituen galdetegi bat erantzun beharko dute idatziz, Epaimahaiak aurrez adierazitako gehieneko denboran. Galderak Deialdi honen II. eranskineko gaitegian agertzen diren gaiei buruzkoak izanen dira. Zenbait aukera egonen dira galdera bakoitzari erantzuteko, eta horietako bat baino ez da baliozkoa izanen.



Proba honek gehienez ere 50 puntuko kalifikazioa izanen du. Proba egin aurretik zehaztuko dira hori baloratzeko irizpideak eta nola zigortu akatsak aukera anitzeko erantzunak dituzten galderetan. Proba gaitutako dute ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (25 puntu), gutxienez, lortzen duten izangaiak.

4.2. Probarako deialdi bakarra egingen da, eta izangaiak Nortasun Agiri Nazionala, AIZ edo pasaportearen aldean dutela azalduko dira hartara. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiak baztertuta geratuko dira.

4.3. Hautaprobak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoaren aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

4.4. Proba egin ondoren, izangai bakoitzaren emaitzak argitaratuko dira Udalaren webgunean eta iragarki-taulan, izangaien izena, abizenak, NANA eta puntuazioa adierazita.

Probaren emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistroan eskabidea aurkeztuta.

Bosgarrena.- Kalifikazio-epaimahaia.

5.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Javier Horcada Baztan jauna, Osoko Bilkurako idazkaria.

Epaimahaiburu ordezkaria: Victoria Borja Etayo andrea, Aholkularitza Juridikoko zuzendaria.

Epaimahaikidea: Juan Luis Guijarro Salvador jauna, Iruñeko Udaleko legelaria.

Epaimahaikide ordezkaria: Carmen Martínez Arcelus andrea, Iruñeko Udaleko Zuzenbidean lizentziaduna.

Epaimahaikidea: María Gay-Pobes Vitoria andrea, Iruñeko Udaleko legelaria.

Epaimahaikide ordezkaria: Antonio Armendáriz García jauna, Iruñeko Udaleko legelaria.

Epaimahaikidea: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, Batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkaria: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, Batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide-idazkaria: Miguel Ángel Cuesta Jorquera jauna, Iruñeko Udaleko legelaria.

Epaimahaikide-idazkari ordezkaria: Paula Unanua Albéniz andrea, Iruñeko Udaleko legelaria.



5.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorreko Giza Baliabideetako zuzendaritzari jakinarazi hori, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako aurreikusiak dauden arrazoiak suertatzen bada.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errefusatzea, halako inguruabar horietako bat gertatzen bada.

Epaimahaiaren osaera aldatzen bada, epaimahaikideek parte ez hartzeko edota haiek errefusatzeko legez ezarritako kasuak direla-eta, jendaurrean emanen da horren berri izangai onartuen eta baztertuen zerrendekin batera.

5.3. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

Epaimahaia ezin izanen da ez eratu, ez jardun gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe, eta, betiere, epaimahaiburua eta idazkaria edo haien ordezi ari direnak bertan daudelarik.

5.4. Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake probarako. Aholkulari horiek haien espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta horixetan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

Seigarrena.- Gainditu dutenen zerrendak.

6.1. Behin probaren kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak argitara emanen ditu Iruñeko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean –zein bere kabuz eta izena, abizenak NANA eta puntuazioa adierazita– honako zerrenda hauek:

- Prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, erdietsi duten puntuazio osoaren hurrenkeran.
- Aldi baterako kontratazioari dagokion deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazio osoaren hurrenkeran.

Halaber, Epaimahaiak Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dizkio zerrendak, onets ditzan, hautapen-prozesuaren espendiente osoarekin batera.

6.2. Izangaiek guztira lortzen dituzten puntuetan gerta litezkeen berdinketak Epaimahaiak ebatziko ditu irizpide hauekin bat:

- a) Prestakuntzarako izangaien deialdia: puntuetan berdinketarik gertatuz gero, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean izangaiek aitorturik daukaten antzinasunaren arabera erabakiko da. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, hura ebatziko da Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorreko Giza Baliabideen zerbitzuan eginen den zozketa bidez, eta berdinduta dauden izangaiei deituko zaie zozketa egiten denean bertan egon ahal izan daitezen.



- b) Aldi baterako kontrataziorako deialdia: puntuetan berdinketarik gertatuz gero, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean izangaiek daukaten adinaren arabera erabakiko da, zaharretik hasita. Eta berdinketak bere horretan jarraitzen badu, Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorreko Giza Baliabideen zerbitzuan eginen den zozketa bidez ebatziko da, eta berdinduta dauden izangaiei deituko zaie zozketa egiten denean bertan egon ahal izan daitezen.

Izangai-zerrendak izangaia deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei osasun-azterketa bat eginen zaie, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

Zazpigarrena.- Izangaien zerrendak eta dei egitea.

Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko ditu izangai-zerrendak, izangaia deitzeko hurrenkerari lotuta (izena, abizenak, NANA eta lortutako puntuazioa agertuko dira), eta ikusgai paratuko dira Udalaren iragarki-taulan eta www.pamplona.es webgunean.

Ebazpen honek onesten dituen deialdien oinarriek ezartzen dutenarekin bat deituko zaie arau honek aipatzen dituen zerrendetako izangaiei, eta kasu guztietan bermatuko da prestakuntzarako izangaiek lehentasuna edukiko dutela aldi baterako kontrataziorako izangaien aurretik. Momentu horretan aurkeztu beharko dituzte III. atalaren (Bi deialdietako arau komunak) bigarren oinarrian aipatutako jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo legeekin bat kautotuak. Bi deialdietako arau komunak, bigarren oinarria.

Zortzigarrena.-Errekurtsoak.

Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtsu hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsua, egintza zein organok egin eta horri zuzendua, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Epaimahai kalifikatzailearen egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekursoak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazpena egiteko.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 11ren. Iñigo Anaut Peña, Giza Baliabideetako zuzendaria



I. ERANSKINA

ESKABIDEA, DEIALDIAN PARTE HARTZEKO, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUN LANPOSTUAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ		JAIOTEGUNA
NAZIONALITATEA		EGUNGO HELBIDEA
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

Desgaitasunaren egiaztapena (hala badagokio, soilik).

Desgaitasuna dut, eta eskabidearekin batera egiaztatzen dut.

Nire desgaitasuna dela-eta, eranstean dudana egokitzapena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik (beste orri batean).

AZALPENA:

Ez dut eritasun edo akats fisikorik edo psikikorik, karguan aritzea galarazten didanik, eta ez dut indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naiz diziplina espediente bidez bereizia izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik, eta ez nago desgaituta edo gabetuta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz eta deialdiko baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobei bidez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUN lanpostuan aritze aldera, aldi baterako kontratu bidez. Deialdia 2017ko 90. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, maiatzaren 11koan, argitaratu zen. **(Erregistro zenbakia 1803)**

DATUEN BABESA. Iruñeko Udala da erantzule botere publikoak gauzatuz egiten diren enplegu-deialdiak kudeatzeko erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen erabileraz.

Oinarri Juridikoa: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

Datuak gordetzeko aldia: Datuak zertarako bildu diren eta helburu hori betetzeko beharrezko aldiaren gordeko dira, eta biltegiratuko dira Udalari haien erabileratik etor dakioken erantzukizunik eduki bitartean. Halaber, bete behar dira datuak gordetzearen gainean Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak epaileei eta epaitegiei lagatzen ahalko zaizkie, indarreko legeak betez, eta argitara emanen dira Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan, deialdian adierazitakoarekin bat.

Eskubideak: Jakitera ematen dizugu eskubidea duzula datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez bada– eta horiek ezabatuzko, Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora (www.pamplona.es) joaz. Halaber, interesdunek errekamazio bat egin dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean (Jorge Juan k., 6, 28001, Madril), idazki bat aurkeztuta edo egoitza elektronikoaren bidez (www.agpd.es)

Iruñean, 2018koaren(e)an

(Sinadura)



I. ERANSKINA

ESKABIDEA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUN LANPOSTUAN PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN ARITZE ALDERA

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ	JAIOTEGUNA	
NAZIONALITATEA	EGUNGO HELBIDEA	
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

AZALPENA:

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz, eta horiek jardunean aritzeko eskatu zaizkidanez bestekoak dira.

Eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobeen bitartez izangai-zerrenda osatzeko deialdian parte hartzeko, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUN lanpostuan aritze aldera, prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran. Deialdia 2016ko ____. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, _____aren __koan, argitaratu zen.

DATUEN BABESA. Iruñeko Udala da erantzule botere publikoak gauzatzuz egiten diren enplegu-deialdiak kudeatzeko erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen erabileraz.

Oinarri Juridikoa: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

Datuak gordetzeko aldia: Datuak zertarako bildu diren eta helburu hori betetzeko beharrezko aldiari gordeko dira, eta biltegiatuko dira Udalarri haien erabileratik etor dakioken erantzukizunik eduki bitartean. Halaber, bete beharko dira datuak gordetzearen gainean Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako arauak.

Datuen hartzailak: Datuak epaileei eta epaitegiei lagatzen ahalko zaizkie, indarreko legeak betez, eta argitara emanen dira Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan, deialdian adierazitakoarekin bat.

Eskubideak: Jakitera ematen dizugu eskubidea duzula datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko, Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora (www.pamplona.es) joaz. Halaber, interesdunek erreklamazio bat egin dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean (Jorge Juan k., 6, 28001, Madril), idazki bat aurkeztuta edo egoitza elektronikoaren bidez (www.agpd.es).

Iruñean, 2018koaren(e)an
(Sinadura)



II. ERANSKINA

GAITEGIA

- 1.- 1978ko Espainiako Konstituzioa.
- 2.- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
- 3.- 39/2015 Legea, urriaren 2koa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 4.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 5.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen.
- 6.- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 7.- 279/1990 Foru Dekretua, urriaren 18koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea zati batean garatzeko Erregelamendua onesten duena, Nafarroako Toki Entitateen egintza eta erabakien inpugnazioari dagokionean; eta 173/1999 Foru Dekretua, maiatzaren 24koa, zeinaren bitartez aipatu erregelamenduaren II. Kapituluaren berridazketa egiten den.
280/1990 Foru Dekretua, urriaren 18koa, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen erregelamendua onesten duena.
- 8.- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen Atariko Titulua eta I. eta II. Tituluak.
- 9.- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa. Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2014/23/UE Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, emakida-kontratuei buruzkoa. Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2014/24/UE Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa, 2004/18/CE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- 10.- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen erregelamendua onesten duena.
- 11.- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.



12.- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa; eta 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onesten duena.

13.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua, abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegileak onetsitakoa.

14.- 2/2015 Errege Dekretu Legegilea, urriaren 23koa, Langileen Estutuaren Legearen testu bategina onesten duena.

15.- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.

Oharra: Hautaprobak egiten diren unean lege-aldaketak egon badira, ariketak une horretan indarrean dagoen araubidearen arabera baloratuko dira.